



■ SANTIO JAIAK

Bilera irekia, gaur zortzi

Santio jaien inguruan hitz egiteko bilera irekia deitu dute. Maiztaren 7an, asteazkenean izango da, 19:30etan, udaletxean. ■

■ OLINPIADAK

Upeliotarrak patinetan, gaur

Hernaniko Olinpiadak larunbatean hasi ziren eta gaur bigarren proba izango da: patin lasterketa. Aurreko urteetan bezala, Astigarragako gazteek ere parte hartuko dute, Upeliotarrak izenarekin. Kedada egin dute Joseba Barandiaran plazan 21:00etan, kotxeetan joateko, gero bueltatzeo autobusik ez baita. Herriarrei dei egiten diete ikustera eta animatzera joateko: "Busti dezagun Hernani kolore naranjez!". ■

■ LAB - MAIATZAK 1

Manifestazioa bihar, Hernanin

Maiatzak 1, Langileen Nazioarteko Eguna da bihar eta LAB sindikatuak eskualdeko manifestazioa deitu du Hernanin. 12:00etan abiatuko da Gudarien plazatik. ■

■ ARGIA MOZKETA

Argia moztuko dute bihar

Iberdrolak argia moztuko du bihar, honako kaleetan: Nabarra Oinatz kalea, Amarrandegi kalea, Kale Nagusia (3, 5, 7, 8, 9, 10, 16, 18, 19, 20, 24, 26, 28, 32, 36, 38 eta 40 zenbakiak), Tomas Alba kalea (2, 4), Norberto Almundo plaza, Foru plaza, Santio zeharra (29ra arte) eta Agineta Bidea. ■

■ PLAZA DANTZAK

Dantzaldi gidatua, igandean

Hilabetero bezala, plaza dantzak antolatu ditu Astigar danza taldeak, igandean. 12:00etatik aurrera izango da Joseba Barandiaran plazan. ■

■ XAGUXAR

Lekurik, ez

Jakinarazi dutenez, Xaguxarrek antolatutako asteburu pasarko ez dago lekurik. ■

ISABEL

Janari denda



→ **Eskaintza bereziak 15 egunez** ←

Tomas Alba 11, Astigarraga
943 55 23 67

■ IPINTZA BASERRIA IXABEL LABAKA

«Etxeko andreek, rekarderek eta turistek erosten zizkiguten berdurak»

Baratza garaian bete-betean gauden honetan, Ixabel Labakarekin bildu da Kronika. Berak ondo baino hobeto daki zer den baratzan lan egitea eta bertatik bizitza. Erriberetako baratzak ere gogoan ditu.

IXABEL Labaka, Ipintza baserrian jaioa da, 1929ko urtarriaren 28an. Gurasoek erosi zuten baserria: «Aitak eta koinatuak erdibana erosi zuten. Bi familia ginen. Eta lurra ere erdibana genituen», azaldu du Ixabelek. Astigarragako beste hainbat baserrrik bezala, erriberetako lurra zituzten eta baratza egiten zuten bertan. «Erriberetan 1.000 metro genituen guk eta osabak-eta besete 1.000 metro. Herriko askok zituzten han baratzak. Markesarenak ziren lur gehienak eta askok bere lurra ibiltzen zituzten errentaren truke. Lur horiek oso emankorak ziren».

Erriberetako lurra ziren, Ergobitik hasi, Juangiteneatik, eta errekaraino, gaur egun Biurarena dagoen lekuaino. Bidebitarte poligono osoa, baratzaz betea zegoela azaldu du Ixabelek: «Lehen hor zeuden baratzak eta bi baserri: Desierto eta Bidebitarte. Bidebitarte, gaur egun Txingurri dagoen lekuaren zegoen».

Neskak izanda, zailagoa

Ixabelen aita gazterik hil zen: «Hiru urte ntuenean alargundu zen ama. Aita hil zen, txikiena jaiotzeko zegoela», dio. Sei anai-arreben artean, laugarrena zen Ixabel. Bi mutil eta lau neska ziren, eta etxearen ia denak neskak izanda, diru pixka bat ateratzeko oso zaila zutela gogoratzentzu. Beraien amak baratzan eta baserrian lan asko egin behar izan zuela azaldu du Ixabelek, familia aurrera ateratzeko.

Donostiara saltzen

Berdura saltzen, Donostiara joaten ziren. «Tranbian joaten ginen Donostiara, xextera berduraz betea buru gainean jarrita. Egunero, goizeko 06:30ak aldera abiatzen ginen. Eta buelta, ahal zen azkarren! Azkar saltzen bazeen, lehenago bueltatzen ginen». Hasieran, Konstituzio plazan saltzen omen zituzten: «Konstituzio plazan saltzen genuen hasieran, amak hara joateko esaten baitzidan. Bainan han gutxi saltzen zen, eta halako batean nazkatu, eta Bretxan



Ixabel Labaka. Atzoko koadroan bere senarra zenarekin ageri da, Manuel Labururekin.

“Hiru urte ntuuela alargundu zen ama eta lan asko egin behar izan zuen familia aurrera ateratzeko”

hasi nintzen», dio.

Berdurak erosten zizkietenak, etxeko andreak, rekarderek eta turistak izaten zirela azaldu du. Rekarderek baserriarrei erosten zizkieten barazkiak eta ondoren, beraiek garestiago saltzen zuten. Reben-tan ibiltzen ziren. Turistak, beriz, Madrilekoak izaten zirela dio: «Uda partean izaten zen hori. Urteroko cliente batzuk ere izaten nituen, Zaragozakoak. Bainan horia erosten zuten». Arrantzaleekin trukea ere egiten omen zuten.

Gobernare bai

Barazkiez gain, esne pixka bat ere saltzen zuten, eta etxe ibiltzen ziren. «Etxeetara eramaten ginen, hartzaileei. Eta handik, beraien arropa zikinak hartzen genituen goba-ra egiteko. Goiko iturrin egiten genuen goberna. Monjen arropak ere garbitzen genituen. Puxamanta eta guztia! Oraindik gogoratzentzu naiz ze parrak egiten zituzten neska gazteek puxamantekin», dio parrez. Garai hartan komresa

bezala erabiltzen ziren puxamantak. Ixabelek oso oroitzapen onak ditu gobara egiten zuten garaikoa.

Bretxan saltzen aritzen zirenen artean ere harreman haundiak egin zuten: «2-3 bazkari egiten genituen urtean. Oso giro polita izaten genuen. Gure bizimodua horrelaxe zen orduan», dio.

Ixabel 1956an ezkondu zen Manuel Labururekin eta hiru seme-alaba izan zituzten. Ipintza baserrian geratu ziren, Ixabelen anai-arrebek ez baitzuten bertan geratu nahi izan. Ixabelek orain dela 25 bat urterea arte jarraitu du baratzan lanean. Gaur egun, ez dute baratzarako lurrik.

Asko aldatu

Erriberetako aurreneko lurra saltzen, beraienak izango zirela dio Ixabelek: «Lurra saltzen ibiltzen zen bati saldu

genion. 48 bat urte izango dira. Gerora, Transportes Tresa jarri zuten han». Lur emankor hai-ek saldu ostean, penarik izan zuten galdetuta, halaxe dio:

«Orduan dirurik ez genuen, oso pobre bizi ginen, eta baratzarako beste lur batzuk ere bagenuenez, ez genion buelta askorik eman». Gaur egungo poligonoa egingo zenik ez zutela espero dio: «Lurra ez ziren kolpera erosi, poligonoa egiteko. Pixkanaka joan dira lurra erosten eta enpresa eta taillerak irekitzen. Modu txapuze-roan egin da». Ergobian, Muebles Xey ireki zuten garai beretsuan. Ergobiako poligonoa ere ordutik aurrera sortu zen.

Urte hauetan Astigarraga asko aldatu da Ixabelen arabera. Besteak beste, halaxe dio: «Lehen denak ezagutzen ginen; kasu egiten ginen kalean, baina orain denak kotxean ibiltzen dira». ■

Maiatzaren 4ra arte IREKITA



www.oialumezar.com

943 55 29 38

Mikel Arozamena bidea, 16
20.115 ASTIGARRAGA

TELEFONOAK ■ **Taxiak:** 943 55 52 77 ■ **Udalzaingoa:** 092 ■ **IDYA:** 943 46 46 22 (Hernani)

Autobusak: Areizaga - 943 45 27 08 ■ **Anbulatorioa:** 943 33 56 44

FARMAZIAK **Egunez:** ■ **ASTEAKENA Chucla** Kardaberaz 48, Hernani 943 551793, ■ **OSTEGUNA Aizpuru** Latsunbeberri 11 Hernani 943 336077, ■ **OSTIRALA Aldabe** Perkaiztegi 8 (Antziola) Hernani - 943 336022, ■ **LARUNBATA Bulnes** Etxeberri 1 Hernani - 943 557738, ■ **IGANDEA Bulnes** Etxeberri 1 Hernani - 943 557738, ■ **ASTELEHENOA Castilla** Urbieta 7 943 552941, ■ **ASTEARTEA Chucla** Kardaberaz 48, Hernani 943 551793 **Gauzak:** **Aizpuru** Latsunbeberri 1, Hernani - 943 336077

Argitaratzalea



Laguntzaileak



■ OLATU TALKA EKIMENA

Ziklobia eta Sagardoaren Ibaia, hilabete barru

Ekainaren 1ean, Urumeako Ziklobia eta Sagardoaren Ibaia egingo dira. Alde batetik, Donostiatik Hernanirako errepidea itxi egingo da motordun ibilgailuentzat eta bestetik, sagardoa alan garraiatuko da.

EKAINAREN 1ean ekintza ugari izango dira Astigarragan. Besteak beste, Urumeako Ziklobia eta Sagardoaren Ibaia antolatu dituzte.

Ziklobian, Donostiatik Hernanirako errepidea itxi egingo da motordun ibilgailuentzat eta lasai ederrean ibiltzeko aukera izango da, oinez, bizketan, patinetan, gurpildun aulkian... Hain zuzen, Loiola-Txomin-Martutene-Lizeaga/Gartzategi-Astigarraga-Martindegia-Hernani lotuko ditu, 7 km-ko ibilbidea.

Aipatutako auzo eta herri bakoitzean guneak egongo dira eta gune bakoitzean egitarau desberdinak antolatu dira. Astigarragan, bi gune izango dira: herri barruko errotondan (Kutxa parean) eta Erribera plazan.

Ibilbidea, goizeko 10:00etan irekiko da eta arratsaldeko 18:00ak arte egongo da zabalik.

Ziklobia urtero antolatu ohi du Donostiako Kalapie taldeak, mugikortasun iraunkorra bultzatuz. Aurten, Urumean zehar egingo da, Udalen laguntzarekin, Donostia Kulturaren eta Olatu Talka ekinmenaren barruan.

Sagardoa, alan

Sagardoaren Ibaia ere egingo da egun berean. Olatu Talka egitasmoarekin ere bat egin du. Bertan, sagardoaren historia berreskuratzeko beste pauso bat eman nahi da. Garai batean alan (txalupa mota bat) garraiatzen zen sagardoa Urumean zehar eta horixe egingo dute. Lizeaga, Petritegi eta Albaola dira proiektuaren sustaztzaileak. ■

■ FUTBOLA

Trintxerperen aurka bihar, Herreran

Mundarrok bihar ekingo dio berriz ligari. Trintxerperen aurka jokatuko du Herreran, 16:30etan aurrera. ■

■ MUSIKA ESKOLA

Batzar orokorra, astearteean

Ikasturte bukaera gainean denez, urteko batzar orokorra egingo dute Musika Eskolan. Astearteean izango da 20:30etan. Erabaki garrantzitsuak hartuko direnez, dei egin dute parte hartzeko. ■

■ HAUR ESKOLA

Izen ematea irekita, astelehenetik

Kiriketa haur eskolan matrikulatzeko aukera izango da astelehenetik, maiatzaren 14ra arte. 0-2 urteko haurrentzako da. 0-1ekoentzat 16 plaza daude eta 1-2koentzat, 39 plaza. Informazio gehiagorako eta izena emateko: 943 57 34 64. ■

■ ESKU PELOTA - GRAVNI

Gurutzaldek, irabazi

GRAVNI Txapelketako finalerdiak

■ SASKI BALOIA



Arzallus eta Izagirre, Espainiako lehian

Unibertsitateen arteko Espainiako Txapelketa ari dira jokatzen egun hauetan Leonen eta bertan dira Oihana Arzallus eta Leire Izagirre, Mundarrola La Salle senior nesken taldeko kideak. UPV-EHUren izenean jokatzen ari dira. Gaur, Sevillaren aurka jokatuko dute. Sailkatuz gero, bihar jokatuko dute finala. Bestalde, Gipuzkoako ligan, senior neskek 65-32 irabazi zuten Eskoriatzaren aurka. Asteburu honetan erabakiko da zeinen aurka jokatu beharko duten Final Fourreko finalerdia, maiatzaren 10ean. ■

Mutilen partidua bihar, La Sallen

Gipuzkoako ligan, aurreneko mailan jokatzen duen taldeak bihar jokatuko du Internacionalen aurka, 12:00etan, La Sallen. ■

jokatu ziren aurreko asteburuan eta trinketean, eskuz binaka sub 22an, Oier Gurutzalde astigarrarrak eta Loitegik (Gipuzkoa)

40-20 irabazi zioten Iparralderi. Jubiletan, banaka, Argoitz Otaño astigarrarrak 8-35 galdu zuen Nafarroaren aurka. ■

EGURDIA
GAUR

Euri kontuekin jarraituko dugu. Hala ere, euri gutxi egingo du, zaparradak txikik zango dira, eta aterruneak geroz eta luzeagoak, aratsaldetik aurera.

Min.11º / Max.17º

BIHAR

Antzoko giroa izango dugu, baina orokorean euri gutxiago egingo du. Ipar-mendebaldeko haizearen eraginpean jarraituko dugu.

Min.11º / Max.17º

(euskalmet)

■ GURE ESKU DAGO

Taldea martxan dago eta bilera izango da gaur

Bilera 19:30etan izango da, Astigarren lokalean.

TALDEA sortu zen aurreko asteazkenean, Gure Esku Dago dinamika aurrera era-mateko, eta gaur bilera deitu dute. Jakinarazi dute, bilerak irekiak direla, edonork proposatu dezakeela edozer. Bilera 19:30etan izango da Astigar dantza taldearen lokalean.

Aurreneko bilerak izandako erantzunarekin gusto-ra dira taldekiek: «Partaidetza ona izan zen kopuru aldetik (20 bat lagun) eta aberasgarria aniztasunari dagokionean». Erabakitzeko eskubideak elkar-tzen dituztela azaldu dute: «Bertaratu ginenok, batekoak eta besteak, argi dugu erabakitzeko eskubideak elkartzen gaituela eta oraindik Astigarragan jende asko eta asko dagoela bat egiteko prest, oinarrizko eskubide honen inguruan».

Pertsona eta talde desberdinaren babesea

Taldearen helburua da, «ahalik eta jende gehien lortzea, oinarrizko den erabakitzeko eskubidearen aldarrikapenerako eta ekainaren 8an, Durango eta Iruña elkartuko dituen gizakaterako».

Bide horretan, herriko talde eta pertsona desberdinaren bilduko dira erabakitzeko eskubidearen inguruan beren babesea eman dezaten. Horrez gain, azaldu dute, taberna, denda eta kaleak erabiliko dituztela gizakaterako metroak saltzeko.

Aurkezpena eta festa

Maiatzaren 10ean, aurkezpen erraldoi bat egitekoak dira; izan ere, hilaren bukaera aldera jai berezi bat antolatzeko asmoa dute, ekainaren 8ko gizakatearen bidean. ■

■ GALTZAUR JUBILATU ELKARTEA

Kuotak ordaintzeko epea, maiatzean bukatuko da

Maiatzeko martxa ere antolatu dute maiatzaren 17an eta apuntatzeko lista datorren astean jarriko dute.

GALTZAUR jubilatu elkar-tetik jakinarazi dutenez, urteko kuota ordaintzeko epea, maiatzaren azken astean bukatuko da. Beraz, kontuan izan beharko dute bazi-kideek.

Paseoa eta gero, hamaiketakooa

Urtero bezala, Martutenera martxa antolatu du Galtzaurrek. Maiatzaren 17an izango da. Goizeko 09:30etan abiaturiko dira egoitzatik eta Martu-

tenera joan-etorria egingo dute. Ordu beteko buelta izango da, gutxi gorabehera. Ondoren, hamaiketako ederra egingo dute.

Apuntatu egin behar da

Martxan eta hamaiketakoan parte hartu nahi duten guztiek apuntatu egin behar dute, irteera baino lau egun lehenago, gutxienez. Guztia ondo antolatzeko beharrezko dela azaldu dute. Lista datorren astean jarriko dute. ■

IRAGARKI MERKEAK

ARIK Terapia Zentroa. Udalekuak inglesa-euskeraz Aste Santuan, ikastolara eman-ekarri zerbitzu, adimen emozionala, yoga, psikomotrizitatea, masaia... Deitu: 943 50 66 72.